

OSTEGUNEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2018ko OTSAILAREN 08a. 08:30.

OSTEGUNA (2018/02/08)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da; arratsaldean hodeiak gutxitu egingo dira eta gauean zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua geratuko da. Prezipitazio txikia egingo du, noizean behin ertaina kantauri isurialdean, bereziki mendebaldean; arratsalde-gauean atertzera egingo du. Elur-kota 100-300 m inguruan egongo da, igotzen joan eta arratsaldean 300-500 m inguruan geratuko da. Ipar/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da; arratsalde-gauean aldakor eta ahul geratuko da, azken orduetan hego-mendebaldekoa nagusituz. Temperatura maximoetan aldaketarik ez. Izotz txikia egingo du, barnealdeko zenbait tokitan handia.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	7
Bilbao	7
Gasteiz	4
Arrasate	5

OSTIRALA (2018/02/09)

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira. Zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua egongo da, erdi-mailako hodei eta goi-hodeien tartekin. Goizean goiz hodeiak ugarituko dira mendebaldetik ekialdera eta goizean zerua oso hodeitsu edo estalita geratuko da. Goizetik aurrera prezipitazio txiki-ertaina egingo du, sarriago eta ugariago kantauri isurialdean. Goizean elur-kota 500-600 m-ra egongo da; erdiko orduetan 800-1000 m-ra igoko da eta egunaren bigarren partean jaitsi egingo da, azken orduetan 200-400 m-ra egon arte. Hego-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da; goizean ipar-mendebaldera aldatu eta indartu egingo da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin. Temperatura minimoak gutxi edo nahikoa jaitsi eta maximoak gutxi igoko dira. Izotz txikia egingo du, handia barnealdean.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	1	8
Bilbao	2	9
Gasteiz	-4	5
Arrasate	-3	6

LARUNBATA (2018/02/10)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txikia egingo du, noizean behin ertaina kantauri isurialdean, bereziki ekialdean. Elur-kota 200-400 m inguruan egongo da, igotzen joan eta gauean 1000 m inguruan egongo da. Ipar/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, goizaldean bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan; gauean hego-mendebaldera aldatuko da. Temperatura minimoak gutxi edo nahikoa igo eta maximoak gutxi jaitsiko dira. Izotz txikia egingo du, barnealdeko zenbait tokitan handia.

IGANDEA (2018/02/11)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du, sarriago ugariago kantauri isurialdean eta ekialdean. Elur-kota jaisten joango arratsaldean 1400 m-ra egon arte; gauean 900 m-ra jaitsiko da. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan; egunaren bigarren partean ipar-mendebaldekoa nagusituko da. Temperatura igo egingo da: gutxi edo nahikoa minimoak eta nahikoa edo nabarmen maximoak. Gauean izotz txikia egingo du mendi inguruetan.